

# Aginaga: "Jendeak errespetu osoz jokutzen du"

**NOAUA!** Neurrietan aldaketa asko izan ditugu azken hilabetean. Nola bizi duzue sagardotegi denboraldiaren hasiera hau?

**Aginaga Sagardotegia:** Guri min gehien egin diguna txotxean ezin kontsumitzea, baina behintzat pitxerretan banatzen dugu sagardoa. Norberak zerbitzatzen du berea; mahai bakoitzetik bat altxa eta pitxerra betetzen du gero mahaikideei zerbitzatu ahal izateko. Txotxeko giro berezi hori falta da, baina gainontzean gure lan egiteko modua ez dute oztopatzen neurriek eta espazio aldetik ere ez daukagu inolako arazorik distantzia mantendu ahal izateko. Gu gehiago mugatzen gaitu herrien artean libreki mugitu ezin izate horrek.

**Bezeroen partetik errespetuzko jarrerak sumatu dituzue?**



"Gipuzkoa osotik datorren jendea hartzera ohituta geunden".

## **AGINAGA SAGARDOTEGIA**

***"Espazio aldetik ez daukagu inolako arazorik distantziak mantendu ahal izateko"***

Bai, jendeak errespetu osoz jokutzen du. Ez dugu inolako arazorik izan zentzu horretan. Egia da jendeari sarreran azaldu egiten dizkiogula arauak eta mu-

sukoa uneoro jarrita eraman behar duela jakinarazten diogula gaizki ulerturik ez izateko, dela komunera joateko, dela pitxerra betetzera joateko. Txotxean ere ezin dutela edan esaten diegu eta zutik ere ezin dela edan.

**Herriarrek bakarrik joan ahal izan dute orain gutxi arte, baina gauzak zertxobait aldatu dira, ezta?**

Gipuzkoa osotik datorren jendea hartzera ohituta geunden: Elgoibar, Bergara, Villabona, Irun, Goierri ingurua... Gipuzkoa osoko bezeroak ditugu, sagardotegi handia dugulako eta urte osoan lan egiten dugulako. Bezero kopuru hori lortzea ezinezkoa da inguruko bi edo hiru herrietako jendea bakarrik hartzeak aukera izanda.

**Instituzioen laguntza jaso al duzue egoera honi aurre egiteko?**

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartetik antolakuntza jarraibide batzuk ematen dizkigute. Protokoloan aldatetako dauden bakoitzean bidaltzen dizkigute jarraibide berriak. Lanketa handia ari dira egiten uneoro behar diren neurrien berri eman eta laguntzeko. Denon interesa da neurriak ondo betetzea, egoera honekin ahalik eta lasterren amaitzeko.